

**2021EKO IRAILAREN 28AN EGINDAKO
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Gorka Murua Macuso

Zinegotziak

Noelia Lataburu Ortiz
Mikel Iturbe Saizar
Olaia Nieto Legarra
Leticia Aristi Oria
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga
Jose Ramón Epelde Irizar
María Cristina Santos San Sebastian
Marta Castrillo Iturralde

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:30etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2021eko irailaren 28an arratsaldeko 19:30etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari itxita izango da, nahiz eta edozein herritarrek eskubidea izan bileraren akta eta audio grabazio eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

*** 2021/09/09KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**

Ana Leunda EAJ-PNV taldeko Zinegotziak adierazi du, aurreko ez-ohiko bilkuran galde erregurik ez zutela egingo hain justu ere, ez ohiko batzarra zela eta Idazkariak komentario hori aktak jasotzea eskatu du.

Hurrengo batzarraldian zuzenketa eginda berriro ere gai ordenean txertatuko da akta onartu dadin, hala badagokio.

Ana Leunda And.: “ez ohiko bilkura da eta ez luke egon behar galde-erregurik ez?, esan nun”

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2021EKO IRAILAREN 1ETIK IRAILAREN 22RA (2021/228 - 2021/240).

Alkatetzak 2021eko irailaren 1etik irailaren 22ra bitartean (2021/228-2021/240) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- IRURAKO UDALETXKO ZERBITZUBURUAREN LANPOSTUAREN ZEREGIN AL- DAKETA ETA 1/2020 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, UZTAILAREN 22KOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN LEGEAREN TESTU BATEGINA ONART- ZEN DUENA. ZAZPIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.

Gorka Alkateak hartu du hitza, Ogasun batzordearekin eta langileen ordezkariekin bilerak izan direla eta Ogasun batzordeko kideen aldeko adostasuna azaldu dela gai honekiko. Aldi berean txostenaren berri ematen du eta bertan jasota dauden puntuak, nola Udalari eta zerbitzuburuari eragingo dizkion abantaila eta desabantailak azaldu ditu.

Ana, EAJko zinegotziak, adierazi du, hitzez-hitz:

-Gure ustez, udal langile honek, bere lanpostuan betetzen ditu polizi munizipalaren lanak.
-Gobernuan egon ginenean aurreko legegaldian, arazo bat sortzen bazen, deitze genionean, naiz eta bere lan ordu kanpo izan, beti hartzen zuen telefonoa segituan.
-Egoera larri bat aipatzeagatik, esango degu, ze lanak egin zituen Laskibargo autobus istripuaren egunean, uztaila, San Fermin eguna, ostirala, trafiko haundia, moldatu zen, izugarritzko lana eginez. Beti egongo gara eskertuta egun hartan egin zuen lanagatik. Hura bai izan zela poliziaren lan.

EAJ taldeak ondo ikusten dugu aldaketa eta baiezkoa bozkatuko dugu.

GAIA: Zerbitzuetako arduraduna udaltzain zerbitzuko agente bihurtzea.

AURREKARIAK

Udal honetan aguazil lanak egiten zituen pertsona bat zegoen, pertsona hau ez zen udal langilea, zerbitzuak azpikontratatzeko zitzazkion, hauek ziren bere eginbeharrak:

- Ur zerbitzuaren zaintza, depositua, iturriak, ponpatagia, kontagailuak irakurri e.a.
- Kale argiteria, lanparak aldatu e.a.
- Jakinarazpenak.
- Udal eraikinen zaintza.

Pertsona hau jubilatuta zenean udalak funtzionario plaza bat sortzeko prozesua martxan jarri zuen.

1984ko urriaren 16ko udalbatzarrean, Udalak aguazil postua sortzearen erabakia hartu zuen.

Azkenean, 1985eko urtarrilaren 15eko udalbatzak, zerbitzuetako arduradun lanpostua sortu eta aguazilarena amortizatu zuen, honen funtzioak zerbitzuetako arduradun berriak bere gain hartu zituelarik.

1.992an udalak, trafiko lege hausteen salaketak zigortzeko eskumena Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zerbitzuaren gain jarri zuen, arrez gero, zerbitzu buruak jartzen ditu salaketa eta isunak, trafiko zerbitzura bideratzen dira.

Urte guzti hauetan egin izan diren langileen funtzioen katalogo berrikusketa guztietan jaso izan da zerbitzu buruaren funtzioen artean udaltzaingoaren lanak ere badaudela, aipatu den bezala trafiko lege haustea salatzea, trafikoa zaintzea, udal ordenantzak bete araztea, eraikin eta zerbitzu publikoen zaintza e.a.

2019an onartu zen azken errebisioan Euskadiko Polizia Legeak ezartzen dituen funtzioen aipamen zehatza egiten da.

Halaber, 2020ko maiatzaren 27an, 530. Sarrera erregistroarekin Jose Ignacio Lasa Arsuaga Jn.ak, Irurako udaleko zerbitzuburu den karrerako funtzionarioak, udaltzaingoaren zerbitzuko agentearen

kategoriara birsailkatzeko edo udaltzain plaza sor dadila eskaera aurkeztu zion udalari; Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen bosgarren adaketaren zortzigarren xedapen iragankorrean eta hurrengoetan aurreikusitako agindua betetzeko eskatuz.

Honi erantzunez, 2020ko uztailaren 2an Idazkari-Kontuhartzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen bosgarren adaketaren ekainaren 27ko 7/2019 Legean oinarrituta egindako txostenean ondorioztatzen zuen, zerbitzuburu postuari zegozkion eginkizunak proportzioan gehiago direla udaltzaingoari dagozkionak baino eta, aldi berean, ekonomikoki langilearen kategoria ere txikiagotua gertatuko zela.

Orain aldiz, 1/2020 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duen zazpigarren xedapen iragankorrek: "1: Udaletan aguazil, herrizain edo antzeko izenez ezagunak diren funtzionarioak C taldean, C1 azpitaldean eta Udaltzaingoaren zerbitzuko agenteen kategorian integratuko dira..." betebeharrak jasotzen du.

ARAUDI APLIKAGARRIA.-

- 2019ko Giza Baliabideen arrazionalizaziorako programa.
- 2021eko Estatuko aurrekontu legea.
- Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público. Art 14
- Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca. Capítulo II plantilla presupuestaria CA-PÍTULO VI Derechos y deberes de los funcionarios Sección primera. Derechos en general Artículo 69.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen bosgarren adaketaren ekainaren 27ko 7/2019 Legea.
- 1/2020 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duena.

ZAZPIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Aguazilak

1.– Udaletan aguazil, herrizain edo antzeko izenez ezagunak diren funtzionarioak C taldean, C1 azpitaldean eta Udaltzaingoaren zerbitzuko agenteen kategorian integratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen bosgarren adaketaren ekainaren 27ko 7/2019 Legea indarrean jarri eta urtebeteko epean. Hala ere, horrek ez du nahitaez eragin behar ez gastu publikoa handitzea, ez funtzionarioen urteko guztizko lansariak aldatzea, hargatik eragotzi gabe funtzionarioen ordezkari sindikalen eta udalen arteko negoziazioak, eta beti errespetatu beharko dira ekitaldi bakoitzean aurrekontu-legeak administrazio publiko guztietarako ezarritako oinarritzko mugak.

- Abenduaren 14ko 1449/2018 Errege lege-dekretuak udaltzaintzako agintzen dituen kotizazio gehigarriak aplikatzeko araua.

IKUSIRIK.-

- Dokumentazioan aipatzen diren hainbat zeregin udaltzain postuari dagokiola zuzenean.
- Lanpostuen zerrenda aldatzeko prozedura honako hau da:
 - A. Dagokion Udal Zerbitzuak Lanpostuen Zerrenda aldatzeko proiektua idatzi beharko du.
 - B. Informazio horretan eta egokitze jotzen dituen txostenetan oinarrituta, Alkatetzak lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena egingo dio Udalbatzarrari, izapidetu dadin.
 - C. Proposamen hori negoziazio kolektiboan negoziatu beharko da, eta langileen eta Udalaren ordezkariak egin beharko zaie, horri buruzko akordioa har dezaten.
- 1449/2018 Errege Dekretua, abenduaren 14koa, Toki Administrazioa osatzen duten erakundearen zerbitzura dauden udaltzainen aldeko erretiro-adinaren koefiziente murriztailea ezartzen duena.
 - Gizarte Segurantzako kontu berria eta kotizazio gehigarriaren ehunekoaren aldaketak bai enpresa eta bai langilearen aldetik

IRURAKO UDALA	Gizarte Segurantza	Hilabeteroko aldea	Urteko kuota
----------------------	--------------------	--------------------	--------------

	kuota hilero		
2020 ORAIN	1.214,45	0	14.573,40
2021 ETORKIZUNEAN	1.574,25	359,80	18.891,00
Urteko aldea			4.317,60

JOSE IGNAZIO LASA	Gizarte Segurantza kuota hilero	Hilabeteroko aldea	Urteko kuota
2020 ORAIN	186,55	0	2.238,60
2021 ETORKIZUNEAN	258,18	71,63	3.089,16
Urteko aldea			859,56

ERABAKIA.-

LEHENENGO.- Irurako Udaleko lanpostuen zerrendan aldaketa egitea, hau da Zerbitzu buru postua, Udaltzain zerbitzuko agente, C1 mailako azpitaldera integratzea eta dagokion prozedura aurrera eramatea.

2021 URTERAKO LANPOSTUEN ZERRENDA ALDAKETA

KARRERAKO FUNTZIONARIOEI GORDETA KO LANPOSTUAK

Zk:	Izena	Lanpostu mota	Hornitzeko era	Taldea	Eskala	Azpi eskala	Eskatut. titulazio	Hizk. eskak.	Derrig. data	Ordai. maila	Lanp.Osa k. i	Osakin berezia	Jarduna	baldintza Espezif.
1	Udaltzain zerbitzuko agentea	S	K	C1	AB	ZB	3	2	06-01-01	15	18	19.018,72	100 %	B.D.%15

BIGARREN.- postuen baloraketan, orain dauzkan eginkizunez gain, Udaltzaingoari dagozkion eginkizun gehiago txertatzea.

- Herrigunean gertatutako zirkulazio-istripuen atestatuak
- Polizia judizialaren eginkizunetan parte hartzea, polizia judizialeko unitateekin lankidetzan.
- Delitu-egintzak saihesteko prebentzio-eginbideak eta jarduketa guztiak egitea.
- Espazio publikoak zaintzea eta manifestazioak eramaten eta giza kontzentrazio handietan ordena mantentzen laguntzea, hala eskatzen zaienean.

"(...)Beraz, tokiko polizia-zerbitzuko agentearen kategorian sartzen diren aguazilek edo antzekoek polizia-jarduerari lotutako eginkizun gehiago bete beharko dituzte ordura arte egiten zituztenak baino."

Zerbitzuburuaren eginkizunak zaindariaren edo aguazilaren eginkizunen parekoak dira; nahitaezkoa da udaltzaingoaren zerbitzuko agentearen eskalan sartzea, eta lanpostu-zerrendan dagokion aldaketa egitea.

HIRUGARREN.- Gizarte Segurantzari, langileen ordezkariari, interesatuari eta kontuhartzaitza sailari erabaki honen berri ematea.

Zuzenbidean hobeto oinarritutako argudioak salbu.

BOZKETA.- Aho batez onartu da proposamena, **9 ALDEKO BOTO.**

4.- EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: “ARGINDARRAREN PREZIOA”

Alkateak, hartu du hitza eta jarraian dagoen idatzia irakurri du, **MOZIOA: DESKONEKTATU ELEKTRIKETATIK; Haien iruzurraren aurrean, burujabetza energetikoa!**

Argindarraren prezioa maximo historikoetan; fakturak igotzen; enpresa elektrikoak aberasten, herritarrek pobretzen eta Espainiako Gobernuak hori baimentzen. Hori da, hain zuzen ere, herritarren aurka egiten ari den iruzur handiaren laburpena. Iruzur horrek ondorio larriak izan ditu familietan, enpresa txiki eta ertainetan edo denda txikietan. Gobernuak, politikariek, elektrikoek eta guztiek partekatzen dituzten interes ekonomikoek sortutako eta baimendutako iruzurra.

Haiek izan ziren, Espainiako Estatuak gobernatu duten alderdiak, bai PSOE eta baita PP ere, enpresa publikoak pribatizatu, saldu eta desegin zituztenak, sistema desarautuz eta "merkatuaren" esku utziz. Administrazio Kontseiluek kontrolatzen eta manipulatzeko duten merkatuaz ari gara, bi alderdiotako presidente eta ministro ohiez osaturikoa. Helburu bakarrarekin: energia bezalako funtsezko ondasun baten kontura aberastea.

Horrela eraiki zuten haien neurria eginiko merkatu elektrikoa, energia merkeena garestienaren prezioan ordaintzera iristeraino. Argindarrarekin espekulatu eta manipulatzeko dute merkatua, ura edo haizea bezalako ondasun publikoen bitartez. Oligopolioko enpresa handiek, Endesa, Iberdrola edota Naturgyk, milioi askoko irabaziak metatzen dituzte urtero, kontsumitzaileei dirua lapurtzen eta ekoizleei lurraldeak ebazten dizkieten bitartean, ondorio sozial eta klimatiko oso larriak eraginez. Zerutik eroritako etekinak dituen sare oso bat osatu dute urteotan, argindar konpainietako akziodunen poltsikoetan amaitzen dena. Negozio biribila.

Egoera horren aurrean, eskandalu horri aurre egiteko neurri koiunturalak eta adabakiak besterik ez ditu hartu Espainiako Gobernuak, iritzi publikoaren eta indar politiko subiranisten eta aurrerakoien presioak derrigortu duen arte. Eta enpresa handien onurei eragingo dien neurri bakarra hartu duenean, enpresa xantaia egin diote eta mehatxura jo dute; ez bakarrik Espainiako Gobernuari, baita argindarraren faktura merkatuko zaiela espero duten milaka herritarrei ere. Eliteen eta gehiengo sozial eta herrikioren arteko pulsu baten aurrean gaude, finean.

Bada, katalanek, euskal herritarrek eta galiziarrek, fronte komun bat osatu dugu gaur oligopolio energetikoaren mehatxuen aurka, Espainiako Gobernuak iruzur elektrikoari egiturazko neurriekin aurre egiteko erakutsi duen borondate eta ekintza falta salatzeaz gain.

Izan ere, gure herrialdeek, Herrialde Katalanek, Galizak eta Euskal Herriak, ez dute iruzur elektrikoari eta horren erantzuleei aurre egiteko beharrezkoa dugun subiranotasuna. Gure parlamentuak eta gobernuak Espainiako Estatuari lotuta daude, eta horrek guzti hori

gertatzea ahalbidetzen du. Gaur- gaurkoz, merkatuan esku hartu ahal izateko, oligopolio elektrikoari aurre egiteko eta gobernuak ausardia faltagatik hartu nahi ez dituen neurriak martxan jartzeko tresna propioak ukatzen zaizkigu.

Espainiako Estatuarekiko dugun menpekotasun energetiko eta politikoa oztopo argi bat da gure herritarrak enpresek egiten dituzten gehiegikerietatik babesteko. Prezioei muga jartzea, arlo publikotik esku hartzea eta kontrolatzea eragozten digu horrek. Tarifa propioak, arau propioak, merkatu propioak eta, beraz, irtenbide propioak sortzea eragozten digu. Azken finean, publikoa zena berreskuratzea galarazten digu.

Gure herriek subiranotasun energetikoa ez izateak oso garesti ateratzen zaigu galiziarroi, katalanoi eta euskal herritarroi. Bada garaia gure nazioen eraikuntzan ere burujabetza energetikorantz aurrera egin dezagun, ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak izan ditzagun, sistema bidezkoak publikotik eraikitzeke eta argindarra errespetatzeko, oinarrizko ondasun eta eskubide gisa.

Hori dela eta, Irurako Udalak honako hau adierazten du:

1. Espainiar estatuko enpresa elektrikoak argindarraren prezioarekin egiten ari diren iruzur larri salatzen du
2. Euskal Herriak subiranotasun energetikoa behar du, espainiar estatuan ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak behar ditugu, sistema bidezkoak publikotik eraikitzeke eta argindarra oinarrizko ondasun eta eskubide gisa errespetatzeko.
3. **Eusko Jaurlaritzan/Nafarroako Gobernua** interpelatzen dugu, lankidetzan publiko-komunitarioa, deszentralizatua eta kontrol publikoa bermatuko dituen neurri zehatzak har ditzala presazko izaerarekin.
4. Irurako Udalak urriaren 8an, 22:00tatik 22:30etara deitutako itzalaldi masibo eta kazola-jotzeko deialdiarekin bat egiten du.

Ana Leunda zinegotziak jarrian datorren testua irakurri du:

ERANTZUNA EHBILDUREN “DESKONEKTATU ELEKTRIZITATEK, HAIEN IRUZURRAREN AURREAN BURUJABETZA ENERGETIKOA” MOZIOARI

IRUZKIN OROKORRAK

1. Mozioaren testuak panfleta-kutsua du, eta argiaren prezioan inplikaturako eragileen arteko konfrontazioa elikatzen du. Ez du energiaren sorkuntzaren, kontsumoaren eta kostuaren gaiak eskatzen duen zorrotasun eta egiazkotasunik. Iruzurraren aurrean, kontsumitzaileei dirua lapurtzen, eskandalua.

2. Ikuspegi sinplista eta biktimista eskaintzen du, eta proposamena egin duen taldea ez da konponbidean inplikatzeko eragile aktibo gisa identifikatzen.
Enpresa elektrikoak aberasten, herritarrak pobretzen, Espainiako gobernua hori baimentzen, gobernuak, politikariek ... partekatzen dituzten interes politikoak Eta zuek? Non zaudete?
3. Ez du konpromisorik gure gizartearen ongizatearekin eta klima-aldaketak suposatzen duen erronkarekin.
Ez dute ez eraginkortasuna handitzeko neurriez hitz egiten, ez berriztagarriak instalatzeaz, ez autokontsumoaz edo komunitate energetikoez, ezta baliabide propioak aprobetxatzeaz ere.
4. Kontuan hartu behar da mundu mailako arazo batek planeta osoari eragiten diola.
Laburbilduz, errua Espainiako Gobernuak, PPK eta PSOEek dute, eta egia da subiranotasun eza gure gurutzetako bat dela eta subiranotasun maila handiagoa izatea gustatuko litzaigukeela, baina kasu honetan, arrazoiketa umekeria da.
5. Energiaren kostuaren formularen konplexutasunari buruzko ezjakintasuna sumatzen da, eta demagogia politikora jotzen da.
Ez du kontuan hartzen eskaera handiak, ekoizpen eolikoaren jaitsierak eta Espainiako Estatuan tenperatura altuek eragin duten egoera...
6. Elektrizitate-konpainiek eta Gobernuak botatako iragarkien irakurketa partziala egiten du.
Elitearen eta gehiengo sozial popularraren arteko xantaiak eta pultsuak hitz egiten da, enpresa energetikoen munduko zenbait mugimenduk eragin ditzaketen ondorio ekonomikoak eta langileen kaleratzeak kontuan hartu gabe.

ABIARAZLEA

Eskaera elektriko handia klimatizazioan
Ekoizpen eolikoaren beherakada
Gas naturalaren prezio altua
CO2 isurketen prezioaren goranzko joera.

Ziklo konbinatuetatik datorren energia handitzeko beharra (prezioekiko mendekotasun handiarekin, bai lehengaiaren prezioarekiko, gas naturalarekiko, bai isuritako CO2 tonaren prezioarekiko).

EUSKADIN

Alderdi guztiek gure elektrizitatearen prezioari ere eragiten diote (ez hainbeste udako beroak, neguko hotzak, ikusiko dugu).

Euskadin ia ez dugu energia eolikorik sortzen (zer iritzi duzu horretaz?)
Uko egin diogu gure lurpean dagoen gas natural bati (zer deritzozu horri?)

CO2 isurketen kostua gero eta handiagoa da

MOZIO ALTERNATIBOA: KONEKTATU ENERGIA TRANTSIZIOAREKIN

Trantsizio energetikoari aurre egiteko lanak – Nahiz eta termino hori garai hartan normalizatuta ez egon – Bultzatu zuen Eusko Jaurlaritzak duela ia 40 urte Energiaren Euskal Erakundea sortzerako. Petrolioarekiko mendekotasuna garrantzitsua zen, eta da oraindik ere. Orduan, Euskadik energia berriztagarriak, eraginkortasuna eta baliabide propioen aldeko apustua bultzatzen ditu, energia-eredu berri baterako trantsizio-prozesu horri aurre egiteko.

Euskal gizarteak bere energia-eskaerari erantzun behar dio, eta euskal energia-ereduak gero eta jasangarriago den eredu baterantz migratzen jarraitzen du. Eredu horrek kalitatezko hornidura lehiakorra bermatuko du, berriztagarrien ekarpen gero eta handiagoan oinarrituta eta petrolioaren deribatuen erabilera minimizatuta. Herritarrak gero eta gehiago jabetzen dia klima-aldaketak dakarren erronkaren erantzule ere badirela. Honek, gaur egun, bultzada handia ematen die Euskadin energia demokratizatzeko eta ingurumenarekiko berme osoz egiteko egokitu ditzakegun politikei.

Euskadi energia-eskaera handiko herrialdea da, batez ere industria-izaeragatik, baina garraioa da energia gehien kontsumitzen duen sektorea (kontsumitzen den energia guztiaren %43). Enpresek merkatu elektrikorako sarbidea behar dute, baldintza lehiakorretan, ekonomiaren zati handi bat eta kalitatezko enplegu asko horren mende daudelako.

Balantzaren beste aldean, beste errealitate bat dugu: energia gutxi ekoiztea. Horrek kanpora erostera behartzen gaitu, eta beste batzuek ezartzen diguten prezioan egitera. Autosufizientzia eta burujabetza energetiko falta horrek elektrizitatearen prezioari eragiten dio, gure etxeetako argi-fakturari, batez ere ahulenei, eta gure enpresei eta haien lehiakortasunari.

Euskadin gas propioa ez kudeatzeari buruz hartutako erabakiak gure energia-eskariaren prezioak gora egitea ekarriko du datozen hilabeteetan; izan ere, Araban daukagun gasa ekoizteari uko egin bazaio ere, EAEko familiek gas bat kontsumitzen dute, ondorioz, inportatu egiten da, horrek suposatzen duen ekonomia- eta ingurumen-kostuarekin inportatzen da.

Demagogia- eta amorru-diskurtsoak zabaltzeaz harago, gure esku dauden ekimenekin jardun behar dugu. Irakurketa sinplista eta partzialetatik harago, eraikitzaileak izan behar dugu, eta ez ditugu baztertu behar ingurumen- eta energia-erronkari aurre egiteko bideak. Mota guztietako berriztagarriak (eta biltegitratze-soluzioak) areagotzea, parke eolikoak eta fotovoltaiakoak barne, eta energia aurrezteak funtsezkoak dira Euskadiren subiranotasun energetikorako bidean.

Premisa horiek aintzat hartuta, Irurako udal taldeak honako hau proposatu du:

1. Udal honetan ordezkatura dauden alderdiek Euskadin energia berriztagarriak ezartzeko eta energia aurrezteko duten konpromiso politikoa berrestea.
2. Herritarren kontzientzia zorrotz eta egiazkoa sortzen laguntzea, trantsizio energetikoarekin eta klima-aldaketaren erronkarekin bat etorritzat jardutea errazteko.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde- eta toki-erakunde guztiei (aldundiak, udalak, mankomunitateak, kuadrillak) eskatzea trantsizio energetikoan beren zeregina betetzen jarrai dezatela eta efizientzia, berriztagarriak eta energia kudeatzeko kooperatibak eta energia-komunitateak bultzatzeko faktore erabakigarriak sar ditzatela.
4. Herritarrei dei egitea energia-komunitateen autokontsumo formulekin bat egiteko aukera baloratu eta aztertzeke.
5. Eremu ekonomiko, sozial, politiko eta akademikoko eragile publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea, energia-eskariak eta haren prezioak dakarten erronka komunari irtenbideak elkarrekin sortzeke.

Ondoren, Alkateak hartu du hitza eta adierazi du ez dela kalifikazioeten sartuko, herritarren aurrean beste irudi eta maila bat eman behar dutela udal ordezkariak.

Gas naturalari buruzko bere iritzia galdetu eta irrifar txiki bat atera zaiola, EAJ galdetu behardu dio bere buruari iritzia, eta horretarako, hor daukagu Gasteizko udalean gertatu dena, herritarrak aurka daudelako gas ekstrakzioekin.

Gaineratu du, EAJ dela, mezu kontrajarriak zabaltzen ari dena gai honekin.

Ehbildu aspalditik ari dela talde ekologistekin elkarlanean eta agian, Petronor eta ate giratorioen erabilera azaldu beharko diotela herritarrei, egia jakin dezaten.

Hemen, udal honetan, energiaren eta jasangarritasunarne alde egiten ari gara lana eta hori ez da hitzekin demostratu behar, ekintzekin baizik.

Udalaren eraberritzea dela eta, aurreko udal korporazioak gasa ezartzen zuen proiektuan eta guk hori kendu egin dugu beste alternatiba jasangarriagoak ezarriz.

Hemen, gai honen inguruan, biktimak daude, eta hori ez da demagogia, egoera zaurgarrian dauden biztanleak daude, horien artean, emakume eta haurrak ere bai.

BOZKETA.- onartua geratu da proposamena, 5 EHBilduko ALDEKO BOTO eta 4 EAJ AURKAKO BOTOREKIN.

5.- GALDE-ERREGUAK.

1.-Ana Leunda zinegotziak adierazi du EAJ talde politikoak galdera bat duela SKATE parkeari buruz:

- Lekua aldatu ondoren, inguruko bizilagunak bere kexa adierazi zuten.
- Lekua aldatu aurretik, ibiltzen ziren gazteak ere ez daude gustora.
- Inor ez dago gustora.
- Skate parkea erabiltzeko arauetan jartzen du: “erabiltzeko adina 12 urte”, Nahiz eta, hori jarri, ume txikiagoak ikusten ditugu, beraz umeentzako beste parke bat bihurtu da.
- Jakin nahi degu:
 - Gazteak nola gelditu dira?
 - Bizilagunak alkatearekin eduki zuten bilera ondoren, nola dago egoera?

Gorka Murua alkateak erantzun du galdera, eta bizilagunen kexa Skate parkea instalatu aurretikoa izan zela, firma bilketa baten bitartez hain zuzen ere. Sinadura bilketaren ondoren Alkatea eta udal aparejadorea, bizilagunen ordezkariarekin bildu ziren eta Udalak, ordura arte egindako bidea azaldu zioten.

Skate parkerako beste kokapen batzuk aurreikusi zituela udalak, baina jabetza pribatua zela eta, ez zen inongo adostasunera iritsi; 3 gunen proposatu ziren, Loatzo, Garbilekutik gertu eta Aizpuruako gunea.

Hori horrela eta teknikoki aztertu ondoren Loatzo plaza ikusi zen egokiena zela.

Bizilagunek 2 kezka nagusi zituzten, baxuan bizi direnen intimitatea galtzearen bildurra, skate gailuetako batek hartzen duen altuera dela eta eta gazteek zor zezaketen zarata eta bizilagunen deskatsuan egin zezakeen kaltea.

Skate park hau, bai gazteei eta gai honetan jakintsuak direnei galdetuta instalatu da hor eta modu horretan. Ez dugu inongo gazteren kexarik jaso, halere ez dugu inongo arazorik udaletxera etortzen den edozein gazterekin lasai lasai hitzegiteko.

Anak, erantzunez, beraien galdera, herrian bai bizilagun eta bai gazteen kexak entzun dituztelako izan dela.

2.- Ana Leunda zinegotziak adierazi du 2021eko irailaren 9ko, 2021/235 Alkate dekretuan jasotako erabakiaren inguruan.

- Bertan erabakitzen da Seigarbost enpresa kontratatzea herriko zabor kontenefore organiko eta errefuxan txip sistema jartzeko.
- Zuengandik akordio proposamena jaso genuen irailaren 15ean, erabakia hartuta zegoenean jadanik.
- Ez degu ulertzen, ez duzue entzun ere egin gure proposamena.
- Gu hitz egiteko prest gaude.
- Benetan, akordioa lortu nahi duzue gurekin dena erabakita daukazuenean, gurekin kontaktu gabe?

Gorka Murua alkateak erantzun du galdera, gai hau, aurreko legegintzalditik dator asmo hau.

Erabakia, irizpide erabat teknikoetatik hartu da eta ez irizpide politikoetatik. Azterketa eta lan dexente egin dugu Tolosako Mankomunitatearekin batera, hauen iritzia era jaso dugu eta zein bilketa mota den gure udalerrirako ere beraiekin aztertu da eta, nola ez, Udalak duen ingurumen zerbitzuko Oihanerekin ere.

EAJri pasatako akordioan, txip.aren gaiaz gain, beste hainbat puntu ere badaude, hala nola jasotzen den zabor kantitatea murriztea eta abar.

Gorkak, adierazi du, EAJk ez duela inongo proposamenik aurkeztu.

Anak, orduan, proposamenak aurkeztekotan, elkartu beharko direla, azpimarratu du.

Gorkak, berriz, iritzi erabat teknikoetan oinarrituta egindako proposamena dela eta Irurako udalerraren argazkia, momentu honetan, oso argazki kezagarria dela.

Orduan, Gorka, diagnosiaren datu pare bat azaldu ditu.

Hondakinen gaia ez dela eztabaida gai, udal gobernu bezala ardura herritarrek ordaintzen duten zabor tasa, harik eta, modu eraginkorrenean gauzatzea da.

Udal, urtez urte, aurrekontuetan defizita egiten du, eta haunditzen du, neurriak hartu beharko dira, zuzentzaileak batetik eta esperientzia berriak frogatuz bestetik, ez bakarri konzientziazioa.

Badakigu, herritarrak direla gakoa eta gauzak ongi egin daitezen.

Zabor tasaren kopuruari ere eta sortzen duen defizitari ere kezagarria da eta adarretatik heldu behar zaio, eta ez bakarrik konzientziazioari.

Eta udal honetako zinegotziak horren ardura dugu.

Gorkak jarraitu du esaten, prest daudela bilketa eta hobetzeko beste proposamen batzuk izateko, ondo legokeela adierazi du. Egun dugun argazkia konpartitu eta teknikoekin aztertuta. Inguruko udalerrietako esperientziak hor ditugu eta badakigu zer funtzionatzen duen.

Anak, orduan adierazi du orduan, lbarran, txip.a zegoela eta ireki dutela, Tolosan irekita daudela.

Gorkak erantzun du, aldaketak izan direla, baina pandemiagatik izan dela herri batzuetan. Anoetan adibidez EAJ eta EHBILDU akordio batera iritsi zirela.

Azkenik, adierazi dio EAJ taldeari, badirudiela, EHBIDUK zer esango zai egoten direla, baina beraiek zerbaiten kezka badute, ez dutela zai egon behar, baizik eta, logikoena dela, batzordeetan zerbait esatea.

Proposamena eta hitzegiteko gaiak bi norabideetan izan behar direla.

Anak, amaitu du esaten hitzordua egiteko prest daudela.

3.-Azkenik, Alkateak, udal batzarretako orduaren aldaketa proposatu du, arratsaldeko 19:00tara ain zuzen ere eta zinegotzi guztiak ADOS azaldu dira.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 20:30an eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.